



## ERNE! HEMEN DA EUSKARALDIA!

Azaroaren 20tik abenduaren 4ra **Euskaraldiaren** bigarren edizioa izango da. Dakizuen bezala, **Euskaraldiaren** helburu nagusia herritarren hizkuntza ohiturak aldatuta, euskara gehiago erabiltzea da. Aurten norbanako gisa izena eman ba dezakegu ere, **ariguneen** bidez taldean izen emateko aukera izan dugu. Gure eskolak, nola ez, erakunde gisa parte hartuko du eta horregatik, guraso eta langile guztiei dei egiten dizuegu, zuek ere izena eman eta horretan parte har dezazuen.

Zeuk ere euskaraz **gehiago, gehiagorekin eta gehiagotan** egin nahi baduzu, 16 urte edo gehiago badituzu eta euskara ulertzen baduzu, emazu izena honako helbidean:

<https://izenematea.euskaraldia.eus/>

Jakizu bestalde, Lezon Euskaraldiari hasiera Gurutze Santuaren plazan, azaroaren 20an 17:00etan emango zaiola. Aurten, pandemia egoera dela eta, ezingo dugu elkarrekin bildu baina suziriak entzun ordu, etxean bada ere, festa zeure egin dezazun gonbidatzen zaitugu.

Bestalde, Oarsoaldean Euskaparate lehiaketa antolatu da. Beraz, dendaria bazara, zure erakusleihoa Euskaraldiaren kolorez janzteko aukera aparta duzu. Sariak bikainak dira. Anima zaitetz!

Lezo Herri Eskolak Euskaraldian ere, muxukoarekin egonagatik, euskaraz bizitzen jarraitu nahi du. Egizu gurekin bat eta euskaraz gozatu!